



Idazle gazteen topaketa

EIE Euskal Idazleen Elkarteak antolatutik, lehen aldiz idazle gazteek topaketa egin zuten atzo Pasaian (Gipuzkoa). Elkartein batu eta elkarrekin sortzea da topaketa horien asmoa eta ingandea arte iraungo dute. Topaketak idazle gazte guztiak zabalduak daude, eta baldintza bakarra

daigo: oinen artean egingarri den proiektu bat sortzea. Gero, EIEk sortutako hori kaleratzen lagunduko die idazle gazteei. Atzo Asel Luzaraga, Leire Bilbao, Igor Estankona, Iratxe Etxebeste eta Fernando Morillo elkartu ziren Pasaiaiko Arrokaurdieta aberpebean. www.eie.org.eus

Valle kubatarra eta Iwasaki perutarra izango dira Literaktum jardunaldietan


ERREDAKZIOA

Donostia

Ixiar Rozas idazle lasartearra eta Angel Erro poeta burlatarrak zabalduko dute letren eta lengoaien Literaktum jaialdiaren IV. aldia, maiatzaren 12an. Hilaren 17a bitartean, beste hainbat idazleigarko dira Donostiako literatura taler, mahai-inguru eta poesia irakurketetatik: Espido Freire bilbotarra, Amir Valle kubatarra, Fernando Iwasaki perutarra, Xenia Dyakonova errusiarra, eta Zehra Cirac turkiarra dira. Haiekin batera parte hartuko dute jardunaldietan Mauro Entrialgo *TMEO* aldizkariako marrazkilaria eta Juan Manuel Lopez de Gereñu irakasle eta kritikaria.

«Literatur sorkuntza bultzatzea eta publiko berriaren parte hartzea sustatzea» dute helburu Literaktumeko ekimenei, Ramon Etxezarreta Donostiako Kultura zinegotziaren arabera. Literaktum jardunaldien bidez, literatura ikuskor egiten laguntzea da Etxezarretaren nahia: «Zinemari edo pinturari baino gehiago kostatzen zaio hedabideetan eragitea literaturari, snbu eta *best-sellerrak* irtezen direnean».

Aurtengo Euskal literatura: *bestelako tendentziak* gaiari buruzko eztabaidiak zabalduko ditu ekime-



Amir Valle eta Fernando Iwasaki idazleak. IERNA



nak, Ixiar Rozas eta Angel Erroren eskutik. Hilaren 12an izango da, Liburutegi Nagusian. Hurrengo egunean, Espido Freire egongo da Okendo Kultur Etxean. Maiatzaren 14an, berriz, Fernando Iwasakik mikrofikzioari buruzko tailerra emango du Liburutegi Nagusian, eta, hurrengo egunean, komikia eta kritika sozialari buruz arituko dira Mauro Entrialgo eta Juan Manuel Diaz de Gereñu, Ernest Lluch Kultur Gunean.

Literaturaren ahozko transmisioari buruz hitz egingo dute Amir

Valle kubatarra eta Juan Gutierrezek Tomaseno Kultur Gunean, ostirala 16an. Jardunaldiak bukatzeko, berri, olerkiak irakurriko dituzte Zehra Cirac eta Xenia Dyakonova poetek, Loiolako Bernartegi baserrian.

Literaktum publikoari dagokionez, ikusentzule gehienak literatura gogoko dute, eta usu doaz bestelako mahai-inguru eta talerretara, zinegotziak jakinarazi duenez. «Gizon baino, emakume gehiago dago» horien artean, gehitu du.

Genuaren obra estreinatuko dute Donostia Hiria sarien 50. urteurrenean

ERIK GARTZIA

Donostia

50 urte pasatu dira Jose Maria Mendiolak idazle eta kazetariak. Donostia Hiria literatur lehikaketaren lehen aldiz irabazi zuenetik. Zenbaki borobil hori ospatzeko, sarriaren antolatzaileek ekitaldi ugari prestatu dituzte datozen egunotarako.

Enkarni Genuaren *Todos los viernes cena-k* 2001ean irabazi zuen saria, antzerkiaren atalean, eta lehen aldiz taularatuko da Euskal Herrian, Astorgako (Leon, Es-

painia) antzerki talde baten eskutik. Datorren igandean, maiatzaren 4an, arratsaldeko zazpi eta erditan hasiko da emanaldia Andia Aretoan. Antzerki horren ardatza ezadostasun politikoak dituzten senideen arteko gorabeherak dira, ostrihalero amaren etxean afaltzen dutenean.

Bestalde, maiatzaren 8an, leku eta ordu berean, *Obaba* filma izango da ikusgai. Montxo Armendariz zuzendaria bertan egongo da. Bernardo Atxagak 1981ean *Obabako-*

ak lanarekin irabazi zuen Donostia Hiria saria, ipuinen saillean.

Ekitaldi horietaz gain, literatura beste diziplina batzuekin uztartzen dituztenak ere egongo dira; horien artean, zientzia eta musika.

Zilarrezko ezleak ospatzen dituen sariaren antolakuntzak ofizialtasun kutsu bnt eman nahi dio aldi honen amaierari. Maiatzaren 10ean aurtengo eta lauzko Donostia Hiriko zortzi irabazleei estreinakoz sariak banatuko zaizkie, eta hala itxiko da kulturastea.

30 EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA

ERRETERIA
MAIATZAK 1-2-3-4
2008

EREINTZA ELKARTEA
GIPUZKOAN
FORU ALDEAN
BERRIBIA 14
48901 BERRIBIA (GIPUZKOA)

kutxa
ERRETERIAKO
UDALA

Jose Luis Caso Aretoa
(Udal Merkatu Zaharra)

Ordutegia
11:30 - 14:00
16:30 - 20:30

www.ereintza.com

Batxilergoa
Zientziak eta Teknologia
Humanitateak eta Gizarte Zientziak
Goi Mailako Ziklotetara bideratutakoa
eta gainera...
Batxilergo Eleanitza

hirukide
www.hirukide.org
Tfnoa: 943 870 311